

## **Kontrabanda Esterenzubin**

L.: geo egonak gitun, ama gininan, alo, amaiarreba, hurren... Hurren haszalia, ah hua azkarra, mazte azkarra zunan gure amaiarreba, biziki azkarra, ta hak lagundu gintinan iziarri, tresnaik gabe in zunan, alainan, laneko moldia, denak arrestelu, ta tailu, ta denak hola, beste jeus e, gure bizia hala in dinau, parte aundian, ba nekatia, ba, ba, ta orgaik iiltzen aal ez zelaikan liñekilan, iratziak eta guziak liñekilan, leretan, leen-leenik, eta geo liñetan, ta aal zen bezala, ba, ba, tun, oai beste bizi at dun, oaiko bizi moldia, hala-ala fresak batine oai re, seurra, guk ez dinau eta tresnak, erteko moldian, belar mozteko, belar mozteko maxina, alo, bat motofeuilleuse bat erosi dinau bakarrikan, artaanokoan tailluz, auzoek lagunduz, batek bestia, ta ola. Ah geo, bazunan beste puntu at e, ez baitzen nai zen sosa etxean iten, ta alokazione familiarak ez zitunan jiten denbora etan biziki, guti ono. Geo jin zunan, bana behin ez, ta sosa ez zunan nai bano jiten, ta ni ibiltzen nindunan kontraandan, ua, ah hartan, bana gau osoak paasten, ez dinat ez beti emaztiain ondoan lo in ez, han han aal zen bezala, bana sekula ez gitine arrapatu, alta, in dinau itzulia frango, bana guardiak ez sekula bein e, ez estekatu re niun e, bazitunan gisa artako lekiak paasteko, geo mendiak, hak ez bitzen bideik ordian, mendiak ez... Ez zinan Guardek ez zitenan mendian, xendretan ez zunan neor e egoiten, bidetan ba, gauaz, bena xendretan ez, ta ordian trankil gintunan, kaala nai zen bezala heltzen lekura, ah, gue xantza ola zunan.

E.: zaldia pasatzen zinituzten gehienik?

L.: ba, ba, ba, ba, behi kotsia, bana guti, ez ola, zaldia, zaldia, ba, beorak eta mandoak, astoik ez, astoik bein e, zaldia. Mandoak partikulazki, mandoa. Ordian, laneko bazunan mando frango, buztarrian baitzien mandoak, buztarrian, ta anitzek laneko... Erteko moldian, oaiko tracteur-ak bezala, ba, oai, zaldia animale... Langile gaitza dun zaldia, erteko moldian, zalu ta azkarra, mandoa partikulazki, behorak, bon, eh, hanbeste ez.

E.: eta sosa iten zen kontrabandatik?

L.: ba puxka at, ba hua ba, hua erreusitzen zelaik kontenxko, ah ba, hua etxeko, ez zunan... Erreusitzen zelaikan, ez zunan gaizki ez, eta laguntzale pollita zunan ba, bear baitzen iraun, etxeko lanak eta bear baitzien in, ta ordian, eh, gaua ez zunan hein bat bano iten al, ta uhu! Lanak in behar tiau, eh! Geo ordian, ene koiñata baitzen Pettan, etxeko semia, hua beti ola sosa nuntik iten aal zen eta, hak errabia zinan eta ordian ni re errabiaazten, ah hak sosa nunbaitik ateatzen al bazin, lagunik ez besteik ez gininan biziki, bana gu biak akomaatzen balin baginen, aski gindinan. Ni bidiaian zaintzale, bidiaian so-egile, ni aitzinian beti, ta ordian ni paasten balin banintzan lanpa elektrika batekilaan ola iten gininan argi bat, giileat, eta to ua

ordian garanti zinan bidia iteko, bidian, bidetan, xendran ez, ez dinau bein e in, bidetan, oai paastu bear zelaik bidia, ta ua beti sakelan ba beti argia, lanpa, ua siñalatzan zunan nunbaitik bixkarra tak eldu, to, hak berdin bi-hiru mando kartzen zitinan berak eta ni aitzinea kurri, ni bidia in xaalzale, geo zombait aldiz bazunan ba gauza gaxtoa, oi oi ama, borda aten ondoan paastu bear baginin, han, ez zunan han e xendraik, xendrak bazien, bana borda hua surveillatu bear, eta ondo joan-eta bon borta hetsia balin bazin, ez zela neor e ain seur eta borta polikiño idek eta olaxe ta lanpa elektrikaikin dak argia, ni, oi, oi, atrebitia nindunan jakizan, bena in beha in, eh! Argiaikilan ttak so bat in, bon, baleiki bale badakina? Geoztik trankila geo, trankil. Intzaazkin or bazunan, pasaia, borda, biga re, bo, horik, horik pastu geoztik ba, ba.

**Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala